


## SECCIÓN AMENA.



### ¿ZÉR OTE ZAN?



Alkatiaren eche  
 baten atietan  
 moskor batek utzi ta  
 zerbait gelditu zan.  
 Zeladoriak ziyon  
 ikusirik esan  
 alkatiari *parte*  
 bear ziyola eman.  
 Moskorrak eranzunik:  
 —¿*parte?* ¿zér, erdiya?  
 gizona nai badezu  
 eraman guztiya.



### INDIYANUA TA ILLOBA.



Mutill kantatzen aiaiz  
 ordu guztiyetan,  
 guchiyenaz Giyarre  
 bearko dek izan.  
 —Ez da Giyarre esaten  
 baizik a-rekiñ.  
 —¿E?  
 bazekiat, Giyarra.  
 —Ez jauna, Gayarre.

MARZELINO SOROA.

